



Madrileko Gobernuari eusteko eskaini du PSOEk autonomi paktua Larrinagaren ustez / 5



Alejandro Llano da Nafarroako Opus Dei-ko Unibertsitateko errektore berria / 8



Zazpi mila milioi pezeta galdu ditu AHVk aurtengo lehen sei hilabeteetan / 18

EUSKALDUNON Egunkaria

Larunbata, 1991ko ekainak 29 / II. urtea / 174. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

KOMUNIKABIDEAK

«Uda beroa» iragarri du Euskal Telebistak

EITBk atzo aurkeztu zuen, 'Uda beroa' lemapean, Euskal Telebista eta Euskadi Irratirako uda programa-zioa. Telebistan nabarmena da kultur saioen murrizketa eta umore, lehiaketa eta kirol saioen pisua. / 26



Jugoslaviako Armadako soldaduak, Esloveniako bandera kentzen. AP

Eslovenia berriro Jugoslaviaren menpe

Jugoslaviako Armada Federalak suetena erabaki du, egin dituen erasoekin aurrikusitako helburuak lortu zituela ikusi ondoren, eta Esloveniako mugen kontrola bereganatu du. Esloveniako ordu latzak bizi izan zituen atzo. Gutxienez ehun lagun hil omen ziren borroketan. Tankeekin eta aireko erasoen bitartez (bonbardaketa eta tiroketak) gailendu zen Armada federal erasotzailea.

Desertzioak ere ugari izan ziren. Esloveniaren arabera 100 soldadu eta ofizialek desertatu zuten Jugoslaviako Armadatik. Militarren arabera, berriz, 40 lagun izan dira. Milan Kucan-ek, Esloveniako lehendakariak garbi adierazi zuen: «Gurea ez da gerra zibila. Eraso militar hauek Estatu batek beste Estatu subirano bati eginikoak dira». / 21-22

Lau lagun hil ziren Sevilla-1 gartzelan bonba bat lehertuta

Bi preso, funtzionari bat eta bisitari bat dira hildakoak

Lau lagun hil ziren atzo Sevilla-1 gartzelan bonba pakete batek eztanda egin zuenean. Bi preso, funtzionari bat eta bisitari bat dira leherketaren ondorioz bizia galdu zutenak. Zaurituak ere ugari dira: zortzik eritxean segitzen zuten atzo gauean, eta bi egoera larrian zeuden, Zainketa Bereziko Gelan.

Paketeak biltzen dituzten gartzelako gelan zegoen bonba, ezta daren unean. Eskanerretik pasa ondoren lehergailua zela ohartu eta artezilariei deitu zien zuzendariak, baina iritsi aurretik lehertu zen. Javier Romero Sevilla-1 gartzelako zuzendariari igorria zen paketea, Valladolidetik bidalia, eta Transportes Acha enpresak eraman zuen gartzelara.

Manuel Perez funtzionaria eta Donato Calzado presoak hilda ingresatu zituzten. Jesus Sanchez presoak hondakin artean aurkitu zuten, eta Edmundo Perez, gartzelara bisitan joana, Zainketa Bereziko Gelan hil zen.

Sevilla-1eko gartzelan dauden 700 presoan artean 6 euskal preso politiko eta 2 kataluniar zeuden. Sevilla-2 segurtasun handiko gartzelara eraman zituzten zortziak atentatuaren ondoren. Leherketa eta gero preso batzuek politikoei eraso nahi izan zitzela zabaldu zen arren, iturri ofizialek ez zuten hori baieztatu. / 4



Bost kilo leherkariz osatutako bonbak kalte handiak eragin zituen gartzelan. EFE

HBren baldintzak ez ditu onartu EAK

HBk EARI egindako proposamena ez du onartu alderdi honek, eta akordiora heltzeko baldintza bezala HBk ETARI indarkeria uzteko eskatu behar diola adierazi du Garaikoe-txearen alderdiak. Gipuzkoako diputatu nagusiaren hautaketan HBko batzarkideek botoa Muruari emateko baldintza bezala, sei puntuko proposamena egin zuen HBK. / 6

Bost pertsona atxilotu ditu Armadak Baltica untzia desblokeatzerakoan

Itsas Komandantziako militarrek Greenpeace taldeko bost partaide atxilotu zituzten atzo 'Baltica' zamauntzia desblokeatzeko manatua hartu eta gero.

Ordena Barakaldoko laugarren instrukzio-epaitegiak Itsas Komandantziari eman eta fragata militar bat 'Baltica' untzia zegoen tokira abiatu zen.

Talde ekologistak hiru 'zodiac' bidali zituzten 'Balticaraino' baina Armadak zulatu egin zituen eta bost

lagun atxilotu. 'Greenpeace' talde ekologistak Deustun duen egoitzan ere Armada espero zuten eta ekologistek jaso egin zituzten lehorrerako eskilarak Armadakoek ez abordatzeko eta ondoren aingurari kateatu zizkieten euren buruak. Armada ez zen ordea Deustura agertu.

Bilboko portuan sartu ezinik egon da egunotan 'Baltica' untzia, isurkin toxikoak zekartzala eta, Greenpeaceko ekologistek blokeatuta eduki bait dute. / 8

Muntaia ukatu zuen Monterok

Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak GALekoak zirela esan zitoten Txema Montero abokatuari haien neska-lagun ohiek, HBko abokatuak atzo adierazi zuenez. Blanca Balsategi eta Inmaculada Gomezek esan zizkietenen berri eman zuen Monterok, eta ukatu egin zuen Amedoren kontrako muntaiarik zegoenik. / 6

BESTERIK

POLITIKA

Ttipi-Ttapa amaituta, manifestazioa egingo da gaur Bilbon presoan alde / 5

KIROLA

Espainiako Arraunketa Txapelketa Legution jokatu da gaur eta bihar / 24

KULTURA

Puntako artisten lanak ikusgai izango dira uztailaren 14a arte Iruñean / 27